



**SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK SL ENPRESA PUBLIKOAREN GERENTEAREN LANPOSTURAKO PERTSONA BAT KONTRATU MUGAGABEAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK. ENPRESA HORI BERAKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOEN ZERBITZUA KUDEATZEAZ ARDURATZEN DA.**

**1. oinarria. Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen xedea da Sastrako Kirol Zerbitzuak SL enpresa publikoaren gerentearen lanposturako pertsona bat kontratu mugagabearekin eta lanaldi osorako kontratatzea. Enpresa hori Berako Udalaren kirol-instalazioen zerbitzua kudeatzeaz arduratzen da.

Lanpostuari honako eginkizun hauek dagozkio: enpresako langileek betetzen dituzten eginkizunak integratzea, koordinatzea eta gainbegiratzea, bai eta kirol-instalazioak eta -zerbitzuak zuzentzea ere.

Zehazki, honako hauek:

- Epe labur, ertain eta luzerako kirol-proiektuak iradokitzea, betiere Udalarekin koordinatuta.

- Kirol-instalazioek eta haien programek behar bezala funtzionatzeko behar den materialaren eta ekipamenduaren egoera eta mantentze-lanak antolatzea, erostea eta kontrolatzea.

- Kirol-instalazioetan antolatutako edozein jardueraren erabiltzaileen gogobetetze-maila kontrolatzea eta ebaluatzea.

- Udaleko Kirol Batzordearekin eta batzordeburuarekin komunikazio erraza izatea, kirol-programa behar bezala gauzatzeko.

- Udako eta neguko denboraldietan kirol-instalazioak prestatzea eta antolatzea: irekitzea, ixtea, publizitatea, etab.

- Udalaren kirol-programaren jarraipena egitea, bai eta Kirol Batzordearen irizpidearen arabera nahitaezkoak diren aldizkako kontrolak eta ebaluazioak ere. Urteko memoria egitea.

- Kirol-arloko jarduketan eraginari buruzko azterlanak/lanak egitea, Udaleko Kirol Batzordeak eskatuta.

- Aholkularitza ematea Kirol Batzordeari eta Udaleko Alkatetzari kirol-azpiegituren eta -jardueren gaietan.

- Enpresaren gastuen eta diru-sarreraren kontua kontrolatzeko lanak egitea.

- Nafarroako Gobernuako Kirol Zerbitzuarekin etengabeko harremana izatea, bai eta Berarako kirol-klub eta -elkartekin ere, betiere Kirol Batzordeko lehendakariaren ikuskaritzapean.

- Bere funtzioekin zerikusia duten datu-baseak eta fitxategien tratamendua aztertzea.

- Kirola egiteko erabiltzaile berrien publizitate-, hedapen- eta erakarpen-jarduerak egitea Berako udalerrian.

- Sastrako Kirol Zerbitzuak SLk eta Udalak garatutako kirol-jarduerak, ikastaroak, ekitaldiak, txapelketak eta abar finantzatzeko dirulaguntzak eta/edo laguntza ekonomikoak (publikoak zein pribatuak) lortzeko behar diren gainerako ekintzak prestatu, izapidetu eta gauzatzea.

- Kirol Batzordeak eta Berako Udaleko gainerako organoek deitutako bileretara joatea eta, beharrezkoa denean, bilera horien akta egitea.

- Kirol-monitoreak eta enpresak kontratatutako gainerako langileak koordinatzea.

- Zerrendak egitea eta enpresak antolatutako kirol-jardueretan erabiltzaileek izena emateko lana koordinatzea.

- Erabiltzaileak zein kirol-monitoreak enpresak antolatutako kirol-jardueretara joaten direla kontrolatzea.

- Lanpostua balioaniztuna denez, kirol-jarduerako teknikari-lanak ere egin ahal izanen ditu, beharrezkoa denean.

- Aipatutako zereginez gain, ezarritako helburuak lortzeko agintzen zaizkion beste zeregin batzuk egitea, lanpostuak eskatzen dituen gaitasun profetionalekin bat etorritz.

1.2. Hautaketa honako hautapropa hauen bidez egingen da: test teorikoa, curriculumen balorazioa, proiektuen aurkezpena eta elkarrizketa pertsonala, baldintza hauetan ezarritakoaren arabera. Proba batzuk euskara hutsez egingen dira.

Nolanahi ere, honako printzipio hauek errespetatuko dira: berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna; deialdiaren eta haren oinarrien publizitatea; gardentasuna; hautaketa-organoko kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa-organoren jardunean independentzia eta diskrezionalitate teknikoak; hautaketa-prozesuaren edukiaren eta garatu beharreko eginkizunen edo zereginen arteko egokitasuna; arintasuna hautaketa-prozesuan, objektibotasunari kalterik egin gabe.

1.3. Lan-eskaintza Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Doneztebeko Agentziaren bidez egingen da.

1.4. Euskararen ezagutzari dagokionez, izangaiek ahozko eta idatzizko gaitasunetan C1 mailaren baliokidea den gutxieneko ezagutza egiaztatu beharko dute. Horretarako, parte hartzeko eskabidearekin batera, eskatutako ezagutza dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.



1.5. Lanaldi osoko kontratu mugagabea egingen da hautatutako pertsonarekin, 6 hilabeteko probaldiarekin. 2023ko azaroan lanean hastea aurreikusten da.

1.6. Lan-ordutegia enpresak ezarritakoa izanen da, betiere zerbitzuaren beharren arabera egokituta, eta enpresak aldatu ahal izanen du.

1.7. Lanpostuak Nafarroako beste erakunde batzuen jabetzako kirol-zerbitzuak eta -ekipamenduak kudeatzen dituzten enpresa eta erakundeen sektoreko Hitzarmen Kolektiboko 1. taldeko ordainsariak izanen ditu.

**2. oinarria. Parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak** (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko tratatuek ukitutako estatuetak herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez berezita ez badaude. Era berean, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, legez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gaintua ez izatea.

c) Hauetako titulazio bat: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu-titulua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatura, Irakasle diplomaduna, Gorputz Hezkuntzako espezialitatean, edo baliokideak, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina edukitzea.

Lehen adierazitako titulazioen baliokideak diren ikasketak alegatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen duen legezko edo arauzko xedapena aipatu beharko dute, edo, bestela, Hezkuntza eta Formakuntza Profesionaleko Ministerioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Gutxienez C1 mailaren baliokidea den euskararen ezagutza izatea ahozko zein idatzizko gaitasunetan.

**3. oinarria. Eskabideak.**

3.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Berako Udaleko Erregistro Orokorrean (Herriko Etxeko plaza 1) aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Administrazio

Publikoan Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz.

Eskabidea postetxean (Correos) aurkeztea erabakiz gero, kartazal irekian egingen da, postetxeko langileek, ziurtatu aurretik, eguna eta zigilua jar diezaioten eskabideari. Gainera, Berako Udalarari jakinarazi behar zaio posta elektronikoz ([bera@bera.eus](mailto:bera@bera.eus)), betiere aurkezteko epearen barruan.

Era berean, parte hartzeko eskabidea telematikoki aurkeztu ahal izanen da Berako Udalaren Erregistro Elektronikoko Orokorren bidez, egoitza elektronikoa eskuragarri dagoena (<https://sedeelectronica.bera.eus/>). Kasu horretan, parte hartzeko eskaera espezifikoak eta aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa Erregistro Orokor Elektronikoa fitxategiak eransteko aurreikusitako edozein formatutan erantsi ahal izanen dira.

3.2. Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izan behar dute, eta haietan izangaiek adierazi behar dute betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

3.3. Interesdunek **2023ko urriaren 20ra** arte aurkeztu ahal izanen dituzte eskabideak. Epea 13:30ean amaituko da.

3.4. Parte hartzeko eskaerarekin batera, honako hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu behar dute izangaiek: Nortasun Agiri Nazionala, 2 C) oinarrian eskatzen den titulazioa, euskara-titulazioa, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskuratzeko moduan daudela egiaztatzen duten agiriak, eta curriculum vitae dokumentatua.

3.5. Minusbaliotasuna duten izangaiek, parte hartzeko eskabidearekin batera, minusbaliotasun-egoeraren egiaztagiria aurkeztu behar dute, organo eskudunak emana, eta, horrekin batera, desgaitasun hori lanpostuan normaltasunez jarduteko ezgaitzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikoa ez dela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria.

#### **4. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.**

4.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

- Lehendakaria: Aitor Elexpuru Egaña, Berako Udaleko alkatea eta Sastrako Kirol Zerbitzuak SLko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

- Mahaikidea: Angel Pombar Sainz, Kirol Batzordeko presidentea eta Sastrako Kirol Zerbitzuak SLko Administrazio Kontseiluko idazkaria.

- Mahaikidea: Miren Latasa Barberena, Anikote Leitza SL tokiko enpresa publikoaren gerentea.

- Mahaikidea: Maria Dolores Oyarzabal Zubieta, Berako Udaleko kontu-hartzailea.

- Mahaikidea: Miguel Jose Belarra Tellechea, Berako Udaleko idazkaria.

4.2. Epaimahaiak ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe. Idazkaria izendatuko da kideen artean. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan.

#### **5. oinarria. Proba teorikoa.**



Proba hori urriko azken astean egingen da (interesatuei tokiaren, egunaren eta orduaren berri emango zaie), eta galdera labur eta/edo test motako batzuei erantzun beharko zaie, idatzizko ariketan. Galdera horiek honako gai hauei buruzkoak izanen dira, eta indarreko legediaren arabera eskatuko dira:

- Administrazio-prozedura. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Printzipio orokorrak eta aplikazio-eremua. Administrazio-prozeduraren faseak: ideia orokorra.
- 15/2001 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Nafarroako Kirolari buruzkoa: I. titulutik VI.era.
- 38/2009 Foru Dekretua, apirilaren 20koa, kirol-instalazio eta - ekipamenduen oinarritzko betekizunak eta segurtasun-neurriak arautzen dituena: I. eta II. kapituluak.
- 86/2018 Foru Dekretua, urriaren 24koa, Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuen baldintza higieniko-sanitarioak eta segurtasunekoak ezartzen dituena.
- Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailea 2022-2025: 8., 9. eta 10. apartatuak (helburu orokorra eta ardatz estrategikoak, helburuak, jarduketa-proposamena).
- Nafarroako Kirolaren Institutuaren Emakumearen eta Kirolaren Ekintza Plana (<https://www.deportenavarra.es/es/deporte-y-mujeres>).
- Nafarroako Foru Komunitateko kirolaren eta aisialdiaren eremuko indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa (2023ko apirilaren 4ko NAO).
- 78E/2023 Foru Agindua, uztailaren 13koa, Kultura eta Kirol kontseilariarena, Nafarroako toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia onartzen duena, kirol anitzeko 2023-2024 programak susta ditzaten, 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat 2023ko abuztuaren 3ko NAO).
- 81E/2023 Foru Agindua, irailaren 18koa, Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariarena, toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdia onartzen duena, 60 urtetik gorako programetarako eta osasunerako jarduera eta ariketa fisikoa agintzeko proiektuetarako 2023-2024 (2023ko urriaren 2ko NAO).
- Berako Udalaren kirol-instalazioak eta -zerbitzuak (informazioa hemen: <https://bera.eus/>).
- Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza (1999ko abenduaren 27ko eta 2000ko urtarrilaren 17ko NAO). Indarrean dauden tasak (2023ko apirilaren 3ko NAO).
- Kudeaketa ekonomikoa. Gastuen aurrekontuak. Diru-sarreraren aurrekontuak.
- Sastrako Kirol Zerbitzuak SLren estatutuak (Udaletxean daude eskuragarri).

Epaimahaiak zehaztuko du proba hori egiteko gehieneko denbora, eta **40 puntu** emanen zaizkio gehienez. Galdera guztien hasierako balorazioa berdina izanen da. Gutxienez 20 puntu lortzen ez dituztenak baztertuko dira. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

Azterketarako deialdia deialdi bakarraren bidez egingen da, eta pertsona bakoitzak Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio-agiri bat eraman beharko du berekin. Agertzen ez diren izangaiak oposiziotik kanpo geratuko dira.

Hautaprobak egiteko, desgaitasun aitorturen bat dutenendako bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

Ariketa plika itxien sistema erabiliz eginen da eta haien irekiera publikoa izanen da. Ekintza horren ondoren, izangaien zerrenda, bakoitzak lortutako kalifikazioarekin, udal kiroldegiko iragarki oholean iragarriko da.

## **6. oinarria. Curriculumak baloratzea.**

6.1. Oinarrietan jasotako zehaztapenen arabera merezimenduak dituztela uste duten deialdi honetako hautagai guztiek agiri bidez egiaztatu beharko dute parte hartzeko eskabideari erantsitako curriculum vitae-arekin. Jatorrizko agiriaren edo behar bezala konpultsatutako kopiaren bidez egiaztatutako merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan.

6.2. Epaimahaiak honako baremo honen arabera baloratuko ditu izangaiek egiaztatutako merezimenduak, eta horien puntuazio osoak ezingo du inoiz **15 puntu** baino gehiago izan. Hau da:

### 6.2.1. Esperientzia:

- Administrazio edo enpresa publiko batean gerente edo kirol-koordinatzaile gisa (A eta B mailak), edo antzeko ezaugarriak dituen lanpostu batean, emandako zerbitzuengatik: puntu 1 urteko eta lanaldi osoko; gehienez ere, 5 puntu. Gutxienez lanaldi erdian egindako lanak baloratuko dira, dagokien proportzioan. Dagokion toki-administrazio organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez justifikatuko da. Kontratazioan hilabetetik gorako aldiak bakarrik baloratuko dira. Osatu gabeko hilabeteen kopurua beherantz biribilduko da.

- Kirol-kudeaketarekin lotutako kudeaketa-lanetan erakunde pribatuetan emandako zerbitzuengatik: 0,5 puntu urte bakoitzeko eta lanaldi osoan; gehienez ere, 5 puntu. Gutxienez lanaldi erdian egindako lanak baloratuko dira, dagokien proportzioan. Lan-kontratuaren bidez edo behar bezala konpultsatutako kopiaren bidez egiaztatuko da, lan-bizitzaren ziurtagiriarekin batera. Kontratazioan hilabetetik gorako aldiak bakarrik baloratuko dira. Osatu gabeko hilabeteen kopurua beherantz biribilduko da.

Esperientzia baloratzeko irizpideak aplikatzeko, arau hauek hartuko dira kontuan:

- Ez dira bi aldiz ebaluatuko baremoko talde berean sartutako zerbitzuak, baldin eta aldi berdinetan gauzatu badira.

- Balorazioa egiteko, deialdia argitaratzen den egunera arte emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

### 6.2.2. Formakuntza:

- Kirolaren plangintzarekin, kudeaketarekin, kalitatearekin, giza baliabideekin, programazioarekin, antolaketarekin edo ebaluazioarekin lotutako jardunaldi, ikastaro, mintegi edo masterrak: puntu 1 100 orduko, gehienez 5 puntu. Ikastaroa eman zuen erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez justifikatuko da, eta bertan berariaz jarri beharko du egindako eskola-orduen kopurua.

## **7. oinarria. Proiektuaren aurkezpena eta elkarrizketa pertsonala.**



7.1. Proba teorikoa gainditu dutenek Berako kirol-eskaintza publikoa antolatzeko proposamen bat prestatu beharko dute. Gehienez ere astebeteko epea emanen zaie Berako Udaleko Erregistro Orokorrean beren proiektua **gutun-azal itxian** aurkezteko, 5 orrialdeko luzapenarekin, gehienez ere.

Proiektu horrek alderdi baloragarrien azalpen zehatza eta laburtua jasoko du (orokortasunak saihestuz), honako ezaugarri tipografiko eta inprimatze-ezaugarri hauekin:

- Orrialdearen tamaina: A-4.
- Alde bakuneko edo biko inprimaketa.
- Lerroarte, bakuna edo 1,5 lerrokoa.
- Gutxieneko letra-tipo eta -tamaina onargarriak: Arial 11, Calibri 11 edo Times New Roman 12.

Adierazitakoarekiko gehiegizko dokumentazioa ez da ez irakurriko ez balioetsiko. Azaleztapenean sartzen diren azala, atzeko azala eta banantze-orriak ez dira zenbatuko lehen aipatutako mugaren ondorioetarako.

Horretarako ezartzen den egunean eta orduan, hautagaiak ahozko aurkezpena egin beharko diote epaimahaiari, 30 minutukoa gehienez ere. Aurkezpen horretan, epaimahaiak galderak egingen ditu. Aurkezpena eta elkarrizketa euskara hutsez egingen dira.

7.2. Proiektuaren edukiaz gain, honako hauek ere baloratuko dira: ahoz eta idatziz adierazteko gaitasuna, izangaiak egindako ekarpena, ideien argitasuna eta ordena, eta laburtzeko gaitasuna. Gainera, lanpostuan berehala hasteko jarrera eta prestasuna baloratuko dira.

7.3. Gehienez **45 puntu** emanen dira.

## **8. oinarria. Gainditu dutenen zerrenda eta kontratazioa.**

8.1. Izangaien kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du udal kiroldegiko iragarki oholean, lortutako puntuazioaren arabera.

8.2. Gainditutako izangaien artean puntuazioan berdinketa gertatuz gero, proba osoan haztapan handiena duen puntuazioaren arabera ebatziko da, eta, berdinketak jarraitzen badu, jendaurreko zozketa bidez ebatziko da.

8.3. Ondoren, epaimahai kalifikatzaileak gainditu dutenen zerrenda igorriko dio enpresako lehendakariari, proben batuketan puntuaziorik handiena lortu duena kontrata dezan.

8.4. Hautatutako pertsonak sinatu beharko du kontratua 15 eguneko epean, kontratazio-agindua jakinarazten denetik aurrera. Epe horretan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, kontratua sinatzen ez badu, kontrataziorako eskubide guztiak galduko ditu. Kasu horretan, hurrengo gaindituari proposatuko zaio.

8.5. Sei hilabeteko probaldia ezartzen da, eta, epe horretan, enpresa kontratatzaileak aukeran ebatzi ahal izanen ditu prozesu honetan hautatutako langileekin formalizatzen

diren kontratazioak. Probaldia gaindituz gero, kontratatutako langilea lan-kontratadun langile finko bihurtuko da.

8.6. Kontratatu ez diren gaindituekin, gerentearen lanpostua betetzeko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda osatuko da, Sastrako Kirol Zerbitzuak SL enpresan sortzen diren beharrak estaltzeko.

## **9. oinarria. Datuen babesari buruzko informazioa.**

Datuen tratamenduaren helburua enplegu-deialdia kudeatzea da.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko eta ezeztatzeko, [info@sastrakokirola.eus](mailto:info@sastrakokirola.eus) helbidera idatziz.

Era berean, interesdunek erreklamazio bat aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, Jorge Juan kaleko 6. zenbakiko 28001 zenbakira (Madril) joz edo egoitza elektronikoaren bidez ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)).

Bera, 2023ko urriaren 5a.

Administrazio Kontseiluko lehendakaria,  
Aitor Elexpuru Egaña.





## I. ERANSKINA

### ESKABIDE EREDUA

Izena: ..... ,  
adinez nagusia, NAN zenbakia: ..... , jaioteguna:  
..... , jaioterria: ..... (.....), nazionalitatea:  
..... , egungo helbidea: ..... (.....), kalea:  
..... zenbakia: ..... , posta kodea: ..... ,  
telefonoa: ..... , helbide elektronikoa:  
..... , zure aurrean agertu eta

#### AZALTZEN DUT:

Sastrako Kirol Zerbitzuak SL enpresa publikoaren gerentearen lanposturako pertsona bat kontratu mugagabearekin eta lanaldi osorako kontratatzeko hautaprotetan onartua izatea eskatzen dudala.

Ez dudala lanpostuan aritzeko ezgaitzen duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako.

Elbarritasuna dudala eta, beraz, aipatzen dudan egokitzapena eskatzen dudala, azaltzen ditudan arrazoiengatik. *(Beste orri batean zehaztuko dira minusbalioetasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak). (Adierazi X batez hala bada).*

Erantsi ditudala curriculum vitae dokumentatua, balioesteko, eta 3.4 oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioa.

Sastrako Kirol Zerbitzuak, SLri baimena ematen diodala telefono mugikorraren zenbakia erabiltzeko deiak egiteko.

HORRENBESTEZ, eskaera hau onartzeko eskatzen dut.

(Data eta sinadura)